

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urteko 32. Igandea

2009 Azaroak 8 (B urtea)

Patxi Otamendi

1 Erregeak 17, 10-16

Hebertarrei 9, 24-28

Markos 12, 38-44

- Eszena honetan Jesus Tenplua aurrean eserita dago. Aurrerago, hurrengo perikopan, Tenplura begira bere suntsiketa iragarriko du.

Oraingo pasartean idazlariak erasotzen ditu. Idazlariak kopista baino gehiago ziren: kulturazko pertsonak. Testu legeletan edo Ituneko gaitan jakitunak. Ekialde Hurbileko hainbat lurraldetan idazlariak ohiko adituak ziren. Ebanjelioetan batzutan “lege maisuak” bezala dira aipatuak (Lk 5, 17), bestetan idazlari gisa (Lk 5, 21). Edonola ere, farisearrekin batera aipatuak. Eta haiekin batera, Jesusi sarritan eztabaidak eragindakoak.

Aurpegiratzen dien kritika horren zergatia itxura ponposoan ibiltzea da, lehen irakurketa batean behintzat. Benetako kritika zorrotza, ordea, beste zerbaiteira zuzendua dago: nola sinesmena era okerrean ulertu eta erabiltzen ari diren. Sinagogetan ohorezko lekuak hartzen zituztela dio. Garai hartan, Palestinako sinagogak txikian ziren eta ohorezko aukietarako lekurik gabekoak. 70. urtea geroztiko diaspora berantiarreko sinagogak, ordea, handiagoak ziren eta han izango zen lekurik bereizketa guneak zehazteko.

Hainbesteko kritika merezi ote zuten, ba, idazlari haiek? Pertsonai horiek publikoki eta era nabarmenean egiten zuten otoitz. Eurena, nolabaiteko nabarmenkeria zen, zeren bestalde justizia bideko jarrerak oso gutxi axola baitzitzaizkien. Jainkoaren izena euren aldrebeskeriak estaltzeko erabiltzea eskandalagarritzat salatzen du Jesusek.

- Tenpluan dirua uzten ari den alarguntsak, berriz, duenetik eta hain zuzen beretzat balioko ondasuna denetik ematen du. Bizitzeko funtsezko zaion zerbaitek barik geratzen da, eguneroko beharretarako dirua baitzen. Emandako bi txanponetan ironia egon daiteke, Vespasianoren garaian gurtza unetan bi txanpon eskaini behar zirelako.

Alarguntsa Tenplura joan da. Bere baitatik irten eta bera baino gehiago sumatzen duen Norbait onartzen du. Aldi berean, ia hutsik edo ezer barik geratuko da. Ordura arte zuena ez du atxiki, askatu baizik. Emateko jokaera horretan Jesusek ez du soilik *emari* bat antzematen, *bizitza jarrera* baizik. Emandakoan bera eskaini da emari bezala. Hori da goraipagarritzat aurkezten zaiguna: emakume horrek bizitzak eman dionari heldu baino, bizi duenetik ematen duela. Nahiz eta Jesusek jendeari adierazi ereduak jokabide dela, horrela bizitzeak baditu bere arriskuak.

- Markosek ez digu esaten nola bukatu zuten legelariak eta alarguntsak. Ziur aski legelariak etxera tente-tente joango ziren. Alarguntsari, aldiz, zer jan edo zer eduki gutxiago geratuko zitzaion etxea itzultzean.

- Lacan psikoanalistak zioen “*ego* edo *ni*-aren” garaian bizi garela; arlo askotako egozentrismoan errotuta. Historiaren une honetan, hainbeste baliabide eskura dugunez, nartzisismoa barruraino sartua zaigu. Errealitatetik jaso baino, “nire esperientzia” jartzen dugu beste edozeren neurri. Gure beharretaz zeharo arduratuta, ingurukoak ez zaizkigu hainbeste axola.